

## Violet Park-en bidetik



### **Violet Park-en bidetik**

Jatorrizko izenburua: *Finding Violet Park*

Egilea: Jenny Valentine

Itzultzailea: Iñigo Errasti

Argitaratze urtea: 2008

Argitaletxea: Alberdania

### MIKEL GARMENDIA

Aurrera darrai, egoki eta txukun gainera, Alberdania argitaletxearen erronkak, gaztelaniaren zubitik pasa gabe gaur egungo eleberri arrakastatsuak euskaraz eskaintzekoak. *Violet Park-en bidetik* dugu erronka horren azken fruituetako bat. Lucas Swain, hamasei urteko gaztea dugu narratzailea eta protagonista nagusia. Batetik, hamaika urte zituela desagertu zitzaizen aita etxetik berari, arrebari eta hardun zegoen amari. Horra lehen misterioa. Bestetik, taxi-bulego batean hildako emakume zahar baten errautsez betetako kutxa bat aurkituko du, Violet Park piano-jolearen errautsez betea, hain juxtu. Horra bigarren misterioa. Bi misterio horiek argitzen joatea izango da Lucasekin batera egingo dugun bidaia. Hala, Lukasek nerabegarotik heldutasunerako jauzia egingo du edo, bestela esanda, pertsona bilakatzeko prozesuan berebiziko garrantzia duen aldia kontatuko digu. Eta prozesu hori ez da atemporal izango, guztiz gaur egunekoak baizik: guraso eta seme-alaben arteko harremanak, bikote-arazoak, edadetuen bizimoduaren gora-beherak, drogak, sexua... eta hori guztia heldutasunetik pauso batera dagoen nerabe batek kontatua. Horretantxe dago, nik uste, eleberri honen arrakastaren gakoa, ondo asmatu baitu Jenny Valentine, bai formaz bai edukiz, hamasei urteko gazte baten ikuspegia, kontatzeko modua, sentitzeko modua eta tonua idatzira ekartzen.

Guztiz gomendagarria da liburua gazteentzako eta, alde horretatik, gazte literaturaz ari garela esateko ez dugu batere arazorik. Helduentzako literatura dela esateko ere ez dugu, orobat, arazorik izango eta, izan ere, halaxe dago sailkatua. Azalpen teorikotan galdu gabe, esango nuke Jenny Valentine sakonean planteatzen digun gaia berdin interesatuko zaiela gazteei zein helduei eta hauxe da, nire ustez: iristen da une bat non konturatzen garen gure gurasoak (edo beste pertsona batzuk) ez direla ordura arte ikusi edo sentitu ditugun bezalakoak, modu batera irudikatuak izan ditugula ordura arte, baina gauza asko zeudela haiengan ezagutzen ez genituenak. Deskubrimendu horrek egundoko garrantzia du gazteentzat edo aurkikuntza adinean aurrerago egiten dutenentzat ere.

Iñigo Errastik eman digu liburu honen euskal bertsioa eta, laburki bada ere, hona zergatik iruditu zaidan itzulpen bikaina: gazte baten tonu bat-bateko eta naturala aurkituko dugu Lucas narratzailearen kontakizunean, espresio-gaitasun handiarekin, konplexurik gabe, sintaxiaren eta gramatikaren arauak hautsi gabe ahozkoaren ordenamendutik oso hurbileko esaldiak antolatzen baititu eleberri osoan zehar, irakurketa eroso bezain gozagarria ahalbidetuz. Benetan zoriontzeko moduko itzulpena, nire iduriko.